

Fadoa eta gizontasuna bidaide

Bi gizon bidean, bakoitza bere korapiloarekin; hortxe Xake konpainiaren hirugarren antzezlanaren abiapuntua • Etzi estreinatuko dute 'Fadoak entzuten zituen gizona', Tolosako Leidor aretoan

Amagoia Gurrutxaga Uranga

Lehen esaldia: «Txarli, txikle puta hau». Azkena: «Tarteka mailu-kada bat ematea ez dago gaizki». Esaldion artean, antzezlan oso bat: *Fadoak entzuten zituen gizona*. Xake konpainiaren proiektu berria. Kepa Errastiren ideiatik abiatuta, Txarli Andradek idatzia; Getari Etxegaraik zuzendua; Iñigo Aranbarrrik, Ane Gabarainek eta Errastik berak interpretatua.

Ekainaren 15ean hasi ziren entseguetkin, Tolosako (Gipuzkoa) Topic Txotxongilo Museoa. Eszenografiaren diseinua ondu zuten orduan. Miarritzen (Lapurdi) egin zuten bigarren egonaldia, Theatre de Chimeres konpainiaren egoitzan, uztailearen 6an hasita. Han eman zuten lehen aldiz jendaurran obra. Tolosan daude atzera, hilaren hasieratik, eta etzi estreinatuko dute lana, herri horretako Leidor aretoan, 20:30ean hasita.

«Ez dut gehiegi kontatu nahi obrari buruz, sorpresak rol garrantzitsua jokatzeko duelako bertan», dio Errastik. Kontatu du, bada, lan honen sorrera: «Artikulu bat irakurri nuen, non esaten zen fadoak batez ere emakumezkoek abestuta zirela ezagunak Portugaldik kanpo, eta hori hala dela, ziur asko, tristura, maitasuna mina, malenkonia eta beste kantatzen dituztelako, hau da, emakumeei sozialki lotzen zaizkien gaiak kantatzen dituztelako». Abiapuntu ederra iruditzen omen zitzaion hori maskulinitateari buruz hitz egiteko. «Horretaz hitz egin nahi nuela argi neukan, eta aukera polita ikusi nuen, fadoa gai horren osagai bihurtuz. Beti gustatu izan zait musika edo abestiak antzerkiarekin uztartzea, gainera». *Saudade* horrekin ekin zion Errastik proiektua diseinatzeari. Badira bost urte Xake Produksioak konpainia sortu zuela, Xabier Ormazabalekin batera, eta asteon aurkeztear diren lana hirugarrena dute. Eusko Jaurlaritzak antzerki testuen idazketarako eta Hitzartutako Zirkuituko produkzioarako diru laguntzetara aurkeztu zuen proposamena, iaz. «Eta laguntza eman ziguten». Urte eta erdi joan da or-



Kepa Errasti eta Iñigo Aranbarri aktoreak, atzo, Ander eta Mario pertsonaiak gorpuzten. JON URBE / FOKU

duktik. Ekainera arte egon ziren gidoia ontzen, eta segidan etorri zen entseguen ordua. «Oraindik ez dugu obra estreinatu, baina hogeitik gora emanaldi lotuak ditugu dagoeneko, laguntza horri esker. Garrantzitsua da hori».

Kamioia ardatz

Antzokira ekarritako *road movie* bat da *Fadoak entzuten zituen gizona*. «Bidaia bat delako ardatza, eta kamioi baten kabinan eta inguruan gertatzen delako istorio gutzia». Burgosen (Espainia) hasien da bidaia hori, Mario kamioilariak –Iñigo Aranbarrrik gorpuztuta– autoestopista bat hartzen duenean. Ander –Kepa Errastida autoestopista, eta fado lehia-keta batera doa. Zoriak errepidean elkartu dituen bi pertsonaiek badute elkarren berri; eskola garaitik ezagutzen dute elkar.

Hortik aurrera, beren maskulinitatea oso modu ezberdinetan bizi eta ulertzen duten bi gizonen arteko interakzioak garatzen da. «Bidegurutzean daude perso-

naia biak, eta errepidean gurutzatzen dira. Bat askoz irekiagoa da, bere korapiloaz hitz egitera ohituta dago; bestea, aldiz, ez». Obra garatzerakoan, Errastik nabarmendu duenez, eztabaida asko izan zuten dramaturgoarekin, pertsonaia bakoitza nola perfilatu eta bati edo besteari ezaugarri jakin batzuk zergatik eman erabaki ahal izateko. «Geuri ere, zalantzak pizten zitzaizkigun maskulinitateari buruz hitz egiterakoan. Uste dut hori agertzen dela obra honetan. Hortik aurrera, bihurtune eta ezuste asko dago».

Hor sartzen da Maskuren –Ane Gabarain– rola ere, bi mutil protagoniston izaera ezbaian edo zalantzan jarritz. «Interesgarria iruditu zitzaidan bi titi eta alu bat dituen pertsona batek gorpuztea rol hori». Paradoxak planteatzen dituztelako. Eta hori ez da Xakeren azken produkzioak proposatzen duen paradoxa bakarra, aktorearen arabera: «Egia da izenburuak istorio gozo bat iradoki dezakeela,

eta badauka gozotik ere, baina oso ganberroa da obra».

Horixe litzateke, hain zuzen ere, *Fadoak entzuten zituen gizona*-ren bereizgarrietako bat, *Mami Lebrun* (2016) eta *Lur* (2018) lanen aldean: «Aurreko la-



Lan hau prestatzean, geuri ere zalantzak sortzen zitzaizkigun maskulinitateari buruz hitz egiterakoan»

Kepa Errasti
Xake Produksioak

nak hau baino emozionalagoak edo ziren. Honek ere badauka horretatik, baina ez besteek adina. Hau makarragoa da aurrekoen aldean, eroagoa. Alde horretatik, egin dugu urrats bat. Hala ere, badiu ezaugarri batzuk aurreko lanekin lotzen gaituztenak».

Koherentzia dei dakiok lotura horri. Lantaldeari eusteak badu

zerikusirik horretan, Xakekoaren ustez: «Hor segitzen dute Getari Etxegaraik zuzendari, David Alkorta argiztapen arduradun, Pascal Gaignek musikari...».

Mami Lebrun helduentzako zen, eta asko mugitu zen. *Lur*-ekin, gutzi aldatu zuten estiloz, familiari zuzendutako lan bat izan baitzen. Helduentzako antzerkira itzuli dira orain, bada.

Azken ukituak ematen ari dira proiektu berriari. Koronabirusaren ondorioz, eserleku kopurua murriztuta eta ikusleak maskara jantzia dutela arituko dira etzi. Lehen aldia izango du Errastik maskaratutako publikoaren aurrean jokatzeko: «Gogorra egingo zaidala pentsatzen dut, baina espero dut jendeak barre algarak egitea, eta barreak maskara gainditzen du».

Etziko emanaldiarekin hasiko dute bidea euren *road movie*-arekin; «Txarli, txikle puta hau» esaldiarekin. «Tarteka mailukada bat ematea ez dago gaizki» esanez bukatuko dute.